



Alboka Abeslariak X. urteurren

Hil honetan bete ditu hamar urte Ermuko haur eta gazte osaturiko Alboka abesbatzak. Solfeo ikasi ostean, haurrek kantuan aurrera jarraitzeko proiektu gisa eratu zen honetatik, makina bat haur pasatu da hauek urteotan, gutxi gora-behera 150 inguru. Naziarte mailan ere aritu ostean, Euskal Herriko haur abesbatzen artean bere tokia eskuratua du. Abesbatzaren zuzendari den Maria Elena Iturriagagoitiarekin izan gara solasean, hauek urteotako eta etorkizuneko jardueraren berri jakiteko.

DROGETENITTURRI- ZENBAT HAURREK OSATZEN DUTE ALBOKA ABESBATZA?

M.E.I.- Bi mailatan banatzen ditugu haurrak adinaren arabera. 14 urte bitartekoak eta 14 eta 25 urte bitartekoak. Guztira, 68 abeslarik osatzen dute taldea.

D.- PARTAIDE IZATEKO INONGO BALDINTZARIK BADA?

M.E.I.- Solfeo-ko ikasketak eginak behar dira izan. Partiturak jarraitzen ere jakin behar da. Gaztetxoan abesbatzeko partiturak nahiko errezak badira ere, nagusienak konplikatu samarrak dira.

D.- ZENBAT HAUR IGARO DIRA 10 URTE HAUTAN ABESBATZETIK?

M.E.I.- Makina bat, gutxi-gorabehera 150 haur inguru.

D.- URTEAN ZEHAR NON ABESTEN DUZUE?

Hogeitabost urte pasa dira hil honen 3an, Ermuko Abeslariak koroa sortu zenetik eta zoritxarrez, talde bezela abesteari utziko diotela iragarri berri dute. Seguruenik, ermuar bat baino gehiago ezustean hartuko zuen albiste.

Ez omen da bapatean hartutako erabakia izan, azkenaldian partaideek taldea maldan behera murgildua zegoela konturatzean, egokiena uztea dela erabaki dute. Ez da beraien arteko haserrerik izan, alderantziz, beti bezala lagun handiak izaten jarraituko dute. Zenbait partaideren iritziz, arrazoi ugari izan daitezke ekitaldiak alde batera uzteko: teknika lantzeko eta hobetzeko jendearen falta, sortu berri den koro mixtora joandako zenbait abeslariaren hutsunea eta abar.

Makina bat arrazoi izan daitezke baina dena den, ezingo dira ahaztu mende laurden horretan, gaurrengungo San Pelaio parkean, Luis Mari Izagirre zenaren eta Armando Benito-k izandako gogoe-ta baten ondorioz sorturiko talde honen jardun zabala.

Gaur egun, taldearen sortzaileetatik, zazpi aritu izan dira abeslari. Zuzendari gisa, Alejandro Zubizarreta eta musikari gisa Emilio Pradera aritu dira azken urteotan. Euskal Herriko txoko guztietan ezezik, Asturias, Toledo, Salamanca,artzelona, Lisboa, Kolonia eta makina bat leku gehiagotan ere zabaldu izan dituzte beraien ahotsak.

Gehienetan, euskera hutsez, frantsezez, ingelesez, alemanieraz zein latinez, hizkuntz askotan aritu izan dira. Txapelketak ez dituzte izan sarri, gehienetan erakustaldiak eta kontzertuak izan dituztela.

Badira tartean, anekdota xelebreren bat, besteak beste, Bilboko Arriaga antzokian gertutakoa, txapelketa zela eta, 25 abeslari ezin osatu eta bi ermuar eraman behar zituzten hura, abestu orde, play-back egiten aritu behar izan zutela.

Espero dezagun koroak berriez ere epe laburrean, bere ekitaldietara itzultzeko aukera izan dezala. Hala bedi.

Asier Ibaibarriaga



SIRIMIRI TABERNA

Pintxo eta bokatak

Erdiko kale, 11

esbatzaren ena



M.E.I.- Euskal Herriko abesbatzen Elkarteko partaideak garenez, urtean zehar "Udaberriko abestiak" deritzan jaialdietan hartzen dugu parte. Bestalde, nazioartean ere abestu izan dugu.

D.- NON ADIBIDEZ?

M.E.I.- Futuroscope-n eta Paris-en ere izanak gara.

D.- AINHOA ZUAZUA, ALBOKA-TIK SORTU DEN IZARRA...

M.E.I.- Txikitatik ezagutzen dut. Abeslari ona izateko

dohai guztiak ditu. Etorkizun oparoa ikusten diot.

D.- GIZONEZKOEN ABESLARIAK KOROAK ORDEA, AGURTU OMEN GAITU...


M.E.I.- Ez dakizkit arrazoiak baina benetan pena handia eman dit. 25 urtez aritu os-tean, uztea benetan gogorra da. Hil honen 20an, Santa Zeziliako kontzertuan, nabaritu-tuko da beraien hutsunea.

Asier Ibaibarriaga

MUSIKA

The best of 1980-1990

Musika mota:
Rock-a
Taldea: **U2**
Disketxea:
Polygram



Hil honetan bilduma asko agertu dira musikaren merkatuan, eta horien artean gaur dakarkigun diska: U2-ren 1980-90 urtean arteko onena. Bilduma hau zeragatik aukeratu dugu, nahiko berezia delako; horrela, ez da arrakasta haundien bilduma bat soilik, beren diskografiaren B aldeak ere biltzen dituelako.

Diska bikoitz hau bi zatitan erdibitu daiteke: lehenengoan arrakastak agertzen dira, hau da, betiko abestiak, batzuk "With or without you", "Where the streets have no name", "Angel of Harlem" eta nola ez, "Sunday bloody sunday" bezain ezagunak.

Bigarren diskoan berriz, B aldeak aurkituko dituzue. Abesti hauek ez dira jende gehienarentzako ezagunak, baina hala ere, kanta onak dira eta gainera moldaketa batzuk ere badaude, hala nola, Patti Smith-en "Dancing Barefoot" edo "Unchained Melody", pare bat adibide emateagatik.

Bukatzeko, hau bai dela bilduma "basiko" bat, U2-ren lehen garaia gogoratzeko, edo oso gaztea bazara, aurkitzeko.

David Pachón



Zubiaurre, 12
Tfnoa. 17 01 59

Bar GREDOS

*Pintxoak, otartekoak...
eta hostalarien umore ona*

Eguzki Lore
LORADENDA

Goienkale z/g
Telef. 943 / 17 28 88 - 48260 ERMUA (Bizkaia)

lore-konposaketa

